



**A**rabako Mendien bihotzean babesten den parke natural hau Toloño eta Kodezeko mendilerroen eta Gasteizko Mendien arteko lotura da. Balio natural handia duen korridore hau Natura 2000 Sarearen babespean dago. Azazetako Ega eta Izki ibaiek modelatutako ebakidura harritsu ikaragarrien artean zabaltzen diren ametz basoak dira protagonista Izkin.

Izkin ornodunen 150 espezie baino gehiago daude, erdia baino gehiago interes bereziko gisa katalogatuak. Halaber, beste hainbat espezie ere badaude, igaraba, bisoi europarra edo arrano beltza kasu, mundu mailan mehatxatuta daudenak. Harrapari ugari ere badaude, basakatua eta azeria, besteak beste, edo hainbat anfibio aurki genitzake kontrastez betetako toki honetan.


Izkiko paisaiaren eta naturaren aberastasunaz gain, inguruko herritarrek maitasun handiz zaindu dituzten eta interes historiko eta kulturala pizten duten kokaguneak ere badaude: Erdi Aroko Korres herria, Antoñana hiribildu harresitua, Faiduko ermita, monjeek Lañon zulatutako Gobak, Pipaoneko museo etnografikoa edo San Fausto nekazariaren arrastoen gurtza, Bujandan.



Ibilbide honek bi aukera ematen dizkizu: Antoñana eta Korres artean bizikletan ibili eta bide beretik itzultzea (bikaina familia arteko irteera baterako) edo bidean beste 4 kilometro gehiago egitea, ibilbide malkartsu eta zailagotik, artzain bidearen zati batetik. Zure esku dago!

## 1. TARTEA: ANTOÑANA - KORRES

<b>0 km</b>	Gure abialekua Antoñana herria da. Bertako informazio gunetik Bujandako norabidean doan errepidea hartuko dugu, Vasco-Navaroren ibilbidearekin bat egiten duena, Lizarrarantz.
<b>0,68 km</b>	Errepidea utzi eta pistara sartuko gara, ezkerrean, Vasco-Navaroren seinaleak jarraituz.
<b>0,75 km</b>	Bideak eskuinera egiten du, "trentxo" zaharraren ibilbidera itzultzen da.
<b>1,4 km</b>	Zuzen jarraituko dugu.
<b>2 km</b>	Bidea banatzen da: eskuinera bira egingo dugu. Vasco-Navarro trenbidearen ibilbidetik irtengo gara.
<b>2,7 km</b>	Bidegurutzeta. Eskuinera jarraitu eta Bujandara abiatuko gara errepide horretatik.
<b>3,8 km</b>	Bujandara iritsiko gara. Handik zuzen jarraituko dugu etxe artean, "Kalexkatik".
<b>3,9 km</b>	Eskuinera bira egingo dugu "Eguzki" kaletik eta, jaitsiera txiki baten ostean, A-3136 errepidera iritsiko gara.
<b>4,1 km</b>	Errepidea gurutzatu eta zuzen jarraituko dugu parean dagoen pistatik.

4,8 km	Bidea banatzen da. Zuzen jarraituko dugu, ezkerretik.
5 km	Ehiztarien aparkalekua parke naturalaren sarreran. Zuzen jarraitu eta pistarik estuena hartuko dugu, puntu horiz markatuta dagoena.
6,3 km	Eskuinera bira egingo dugu; zubi txiki bat gurutzatu eta metro batzuetan bidezidor batetik ibiliko gara, eta gero pistara bueltatu. Garai lehorra bada, saihezbide txiki hori hartu beharrean pistatik jarrai dezakezu. Errazagoa da.
6,5 km	Bidegurutzea. Ezkerrera bira egingo dugu, Bujandako bidezidorretik.
7,1 km	Jarraitu zuzen. Bidezidor txikia hartuko bazenu, Aranbaltzako uharkara iritsiko zinateke.
8,1 km	Korresera iritsiko gara. Bidegurutzean eskuinera joko du, oso aldapa malkartsutik.  <b>Kontuz!</b> Familia artean paseo bat ematea aukeratu baduzu, hemen amaitzen da zure ibilaldia. Antoñana hiribidura etorritako bidetik itzultzen da.



## VASCO-NAVARRO IBILBIDE BERDEAREN INTERPRETazio ZENTROA

Aurten, Antoñana herriak Vasco-Navarro trenbide zaharreko ibilbide berdearen interpretazio zentroa zabaldu berri du. Hiru bagoiren bidez, Bergara Estellerriarekin lotzen zuen tren zaharra gogorarazten digu. Barruan, Kanpezako **Arabako Mendialdea Kuadrillaren** turismo bulegoa eta **Izkiko parke naturalari** buruzko informazio baliabide desberdinak daude: txangozaleentzako ibilbideak, bizikletak alokatzeko zerbitzua eta tren zaharren jatorrizko geltokien erreplika, garai hartako txartel, uniforme eta argazkiekin.

Zentro honek, gainera, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Saila garatzen ari den proiektuetako bat nabarmentzen du: Araba osoan zehar zabaltzen den **Ibilbide Berdeen Sarea**, hain zuzen ere, ondare naturala lurralde osoko aberastasun historiko, kultural eta hiritarrekin lotzen duena.

## IZKIKO HARIZTIA



Izkiko parke naturaleko altxorretako bat bere basoak dira, bereziki ametza. Are gehiago, haritz mota hau **Europar espezie honetako basorik handienaren** lekuko da Izkin. Era berean, basoko hegazti jatorretako baten etxea da: okilarena, hain zuzen ere. Hemen lepitzulia, katatxoria eta okil berdeak (txikia eta ertaina) elkarrekin bizi dira. **Okil ertainak**, espezi mehatxatuen katalogoan interes berezia duenak, **Iberiar Penintsulako ale guztien % 30** batzen du Izkin soilik. Euskadin dagoen populazio ia guztia parke natural honetan kokatzen da, eta Pirinioetako eta Kantauriko Mendikateko okil ertainen populazioen arteko lotura egiten du.





## 2.TARTEA: PLUS "TEKNIKOA"

Datozen kilometroetan gure ibilbidea GR-282rekin batera joango da. Artzaintza Naturbideak balio ekologiko handiko inguru basotsuak eta Natura 2000 Sarean sartutako eremuak zeharkatzen ditu.

**8,2 km**

Lehenengo etxea pasatu ondoren, eskuinera bira egingo dugu, GR-282 jarraituz Antoñanako norabidean. Eliza pasatu ondoren, gure ezkerrera, suabe-suabe igoko gara hormigoizko pistatik, hilerriarantz.

**8,6 km**

Hesia gurutzatu eta zuzen jarraituko dugu pistatik



**9 km**

Bidea banatzen da. Eskuinetik jarraituko dugu, pista nagusitik.

**9,4 km**

Eskuinera bira egingo dugu, GR-282 eta Antoñanako bidezidorra jarraituz. Bidezidor oso itxi eta polita hartuko dugu. Gorantz jarraituko dugu.

**9,9 km**

Hesia gurutzatuko dugu. Igoeraren amaiera.

**10,1 km**

Eskuinetik behatokira iritsiko zara eta bertatik ikuspegi zoragarriak ikus ditzakezu, atsedena hartuz.





10,7 km	<p>Bidea banatzen da. Orain GR-282tik irten eta ezkerreko bidezidorretik jarraituko dugu.</p> <p> <b>Adi! Jaitsiera oso teknikoa.</b> Zailtasun handiagoa duen zati txiki hau saihestu nahi baduzu, GRtik jarrai dezakezu eta 11,3 puntuan elkartuko zara berriz gure ibilbidearekin.</p>
10,9 km	<p>Beherantz jarraitu eta pista utziko dugu, eskuinera nabarmen jaisten den bidezidorra hartzeko. Ezkerreko bidezidorretik jarraituko bagenu, Soilara igoko ginateke.</p>
11,1 km	<p>Jaitsiera nabarmenaren ondoren, eskuinerantz hartuko dugun pista batekin gurutzatuko gara. 2 metrotara, malda handiagoa duen beste pista bat ikusiko dugu, baina ez dugu hartuko. Suabe jaisten den horretatik jarraituko dugu.</p>
11,3 km	<p>GR-282rekin elkartuko gara berriz. Ezkerrera bira egingo dugu bertatik jarraitzeko.</p>
11,5 km	<p>Bidea banatzen da. Zapaltzen ari garen pista utzi eta bide estuagoa hartuko dugu, eskuinaldean.</p>
11,6 km	<p>Pista handi batera iritsi eta eskuinetik jarraituko dugu.</p>
12,1 km	<p>Bidea banatzen da. Eskuinetik jarraituko dugu.</p>
12,2 km	<p>Ezkerrera bira egin eta GR-1ekin egingo dugu bat. Artzaintza Naturbidetik jarraituko dugu, gure abialekua izan den Antoñanako informazio gunera iritsi arte. Ibilbidearen amaiera.</p>






## KORRESEKO MONUMENTU MULTZOA

Ikusleak Parte Naturalak udalerrri interesgarriak eta bisitatzeko modukoak ditu alboan: Antoñana, Markinez, Apinaiz, Maeztu, Urarte, Bujanda, Birgaragoien, Birgarabarren, Arluzea, Urturi, Durruma Kanpezu, Atauri, Kinta, muga herrien iraganaren zapoari eutsiz.

Baina herri bat baino ez da sartzen parke naturalaren barruan: Korres. XII. mendeko herri honek oraindik ere mantentzen ditu **Erdi Aroko egitura, harresiak eta gaztelua**, baita **sarbide zubia** ere. Eusko Jaurlaritzak **Monumentu Multzo izendatu** zuen herri honek, ondare aberastasuna ez ezik, paisaia ikusgarriez gozatzeko aukera ere ematen du, besteak beste haitzartea ikus daitekeen gainalde batean baitago.

## IBILBIDEAREN PROFILA



## LEKU INTERESGARRIAK

**NATURA ETA PAISAIA**

1. Izkiko parke naturala
2. Antoñanako hagina (Zuhaitz berezia)
3. Antoñanako ezkia (Zuhaitz berezia)
4. Bujandako haitzartea
5. Soila mendia
6. San Kristobal mendia
7. Izki ibaia

**KULTURA**

1. Antoñanako hirigune historikoa
2. Korreseko hirigune historikoa
3. Mairuen gaztelua Korresen

**AISIALDIRAKO GUNEAK**

1. Korreseko aisialdi gunea. Parketxea
2. Bizikleten alokairua (Antoñana)
3. Hipika zentroa (Antoñana)

Inguruan:

- Urturiko eta Lagrango golf zelaiak

## MAPA



## FITXA TEKNIKOA

<b>Nola heldu:</b>	Antoñanatik
<b>Distantzia, guztira :</b>	12,2 kilometro
<b>Iraupena, gutxi gorabehera:</b>	Ordu eta erdi
<b>Zailtasuna:</b>	1. Tarte: Txikia • 2. Tarte: Handia
<b>Gomendatutako bizikleta:</b>	BTTa
<b>Desnibel metatua:</b>	347 metro

## EZ GERATU IKUSI GABE...

- La Muelara igotzea (1.056 metro)
- Soilara igotzea (990 metro)
- Soila eta La Muela mendien arteko haitzartea (Korresetik Bujandara)
- Markinezko eremutarren kobak
- Antoñana hiribildua (Arabako zaharrenetakoa)
- Inguruko ezta dastatzea
- Olandinako aintzira (nenufarrak)

